



**AGINDUA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA LAN ETA ENPLEGU
SAILBURUARENA, INKLUSIORAKO EUSKAL KONTSEILUA ARAUTZEN DUEN
DEKRETU-PROIEKTUA ALDEZ AURRETIK ONARTZEN DUENA**

Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren 2023ko azaroaren 9ko Aginduarien bidez, Inklusiorako Euskal Kontseilua arautzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko agindua eman da.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.1 artikulua araber, "xedapen orokorren proiektuak idatzi ondoren, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik, dagokion testu artikulatuak alde aurreko onarpena izan beharko du, hasteko agindua eman duen organoak erabakita".

Adierazitakoaren arabera, dekretu-proiektuaren testua idatzi ondoren, prozedurari hasiera emateko aginduan ezarritako xedearekin bat etorritik, alde aurretik onartu behar da, dagozkion izapideak egin aurretik. Horregatik guztiagatik, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Inklusiorako Euskal Kontseilua arautzen duen dekretu-proiektuaren testua alde aurretik onartzea.

Bigarrena.- Araua egiteko prozedurarekin jarraitzea xedatzea, eta beharrezko instrukzio-egintzak egitea agintzea, 2023ko azaroaren 9ko hasiera-aginduan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean adierazitako premisekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz,

Bigarren Lehendakariordea eta Lan eta Enplegu sailburua

IDOIA MENDIA CUEVA

ERANSKINA

LAN ETA ENPLEGU SAILA

INKLUSIORAKO EUSKAL KONTSEILUA ARAUTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA

Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legeak Inklusiorako Euskal Kontseilua sortu zuen, kontsultarako eta parte hartzeko organo gisa.

Legearen 144 eta 145. artikuluek definitzen dute zein diren organo horren funtsezko elementuak, identifikatzen du zer entitate eta erakundek izango duten ordezkaritza organo horretan, eta zer eginkizun dituen esleitura organoak; dena den, legeak aurreikusten du erregelamendu bidez erabakiko dela nola osatuko den organoa, nola izendatuko diren kideak, eta zer araubide eta funtzionamendu izango dituen organo horrek.

Kide anitzeko organoaren osaerak erakusten du interakzio publikoa eta pribatua dagoela Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema definitzerakoan eta garatzerakoan; era berean, proportzionaltasun-parametro bidez, azaltzen da zein esanguratsuak diren organo horretan EAEko administrazio publikoak eta hura osatzen duten erakunde eta entitateak.

Halaber, dekretuak definitzen du zer bokalek osatzen duten, lehendakariarekin eta idazkariarekin batera, Inklusiorako Euskal Kontseilua, eta zer arau erabili kontseiluko bokalok izendatzeko; era berean, arautzen du zer oinarritzko funtzionamendu-arau bete behar diren osoko bilkuran eta batzorde iraunkorrean jarduteko, eta, azkenik, definitzen du zein den azken batzorde horren osaera.

Dekretu honekin, erabat garatzen da aipatutako 14/2022 legearen VIII. titulua: Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemako lankidetzaren, koordinazioa eta parte-hartzea.

Era berean, amaiera jartzen zaio bitartekotasunaldi luze bati, zeren ez da egon kontsulta- eta partaidetza-organoren araubide eta funtzionamendu propiorik.

Izan ere, nahiz eta 14/2022 Legearen bosgarren xedapen iragankorrek aurreikusi aplikatuko direla Gizarteratzeko Euskal Kontseilua Inklusiorako Euskal Kontseiluko osaera- eta funtzionamendu-arauak lege haren 144 eta 145. artikuluekin bateraezinak ez diren guztian, egia da Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen bidez sortu zela kontseilu hura, Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorraren bilakaera modura, zeinak jatorria izan baitzuen Gizarte bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legean. Baina lege haiek ez ziren garatu, eta haien babesean ez zitzaien eman ez araubide ez funtzionamendu propiorik beraien bidez sortutako parte hartzeko organoei.

Horrenbestez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren arabera, bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuak proposatuta, eta 20... (e)koaren (e)(a)n egindako bilkuran Gobernu Kontseiluak eztabaidatu eta onartu ondoren,

HONAKO HAU XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Dekretu honen xedea da Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 144. eta 145. artikuluek garatzea, eta arautzea zein izango diren Inklusiorako Erakundearteko Batzordearen araubidea eta funtzionamendua.

2. artikulua.- Izaera eta araubide juridikoa.

1.- Inklusiorako Euskal Kontseilua kide anitzeko organo bat da, Erakundearteko Batzordea Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 18. artikuluan xedatzen direnetako bat, aholku- eta parte hartze-eginkizunak egikaritzeko diru-sarreraren berme eta inklusio arloan.

2.– Kontseilua eraentzen dute: Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 144. eta 145. artikuluek, dekretu honek eta, hala badagokio, organoak onartzen duen barne-funtzionamenduko erregelamenduak. Aipatutako arauak xedatzen ez duten guztian, berriz, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulutik 18. artikulura bitarteko artikuluek eraenduko dute.

3. artikulua.- Adskripzioa eta egoitza.

1.- Inklusiorako Euskal Kontseilua adskribatuta geratzen da Eusko Jaurlaritzan Eusko Jaurlaritzan inklusio-arloko eskumenak dituen saillean.

2.- Zein saili adskribatzen zaion, sail horren egoitza bera izango du; hargatik eragotzi gabe egoitza kanpo ohiko bilkurak edo bilkura bereziak egitea, deialdian hala zehazten bada.

4. artikulua.- Eginkizunak.

1.- Inklusiorako Euskal Kontseiluak bere egingo ditu Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 145. artikuluan aurreikusitako eginkizunak.

2.- Inklusioaren Euskal Kontseiluari urtero adieraziko zaio zer jarraipen duen Inklusioaren Euskal Planak, eta, ura gauzatu eta gero, zein den plan horren azken ebaluazioa.

Era berean, enplegu- eta inklusio politikak ebaluatzeko organoak aditzera emango dio zein den Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren ebaluazioa.

5. artikulua.- Osaera.

1.- Lehendakariak, idazkariak eta hogeita hamasei bokalek osatzen dute Inklusiorako Euskal Kontseilua.

a) Lehendakaria, idazkaria eta bost bokal Eusko Jaurlaritzakoak izango dira. Eusko Jaurlaritzak, berriz, bermatu beharko du hainbat sail ordezkatuta daudela, inklusio, gizarte-politika, hezkuntza, enplegu, osasun eta etxebizitza arloetako eskumenak dituztenak.

Baldin eta sail batek esleituta baditu arlo baten baino gehiagoren gaineko eskumenak, aipatutako arlo horietako ordezkaritza areagotuko da, aurreko paragrafoan aipaturiko mugen barruan.

b) Hiru bokal foru-aldundien izenean. Foru-aldundiek ordezkari bana izango dute: inklusio-arloko eskumenak dituzten departamentuetako titularra.

c) Hiru bokal udalen izenean.

d) Zortzi bokal Euskal Autonomia Erkidegoko sektore arteko sindikatu eta enpresaburuen elkarte esanguratsuenen izenean. Sindikatuek eta enpresaburuen elkarteek launa ordezkari izango dituzte.

e) Bokal bat Euskadiko Kooperatiben Konfederazioaren izenean.

f) Hamabi bokal Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren izenean, zeinek parte hartu beharko baitute eremu hauetan: pobrezia eta gizarte-esklusioaren kontrako borroka, esku-hartze soziala, lan babestua, laneratzeko enpresak, ekonomia solidarioa, desgaitasun fisikoa, intelektuala, gaixotasun mentala, migratzaileak, pentsiodunak, emakumeak, haurrak eta gazteak.

g) Bokal bat kontsumitzaileen izenean.

h) Hiru bokal Euskal Autonomia Erkidegoko lan sozialeko, hezkuntza sozialeko eta psikologiako elkargo profesionalen izenean.

2.- Kontseiluaren osaerak berrmatuko du orekatuta egongo dela gizon eta emakumeen presentzia, eta denek dutela gaitasun, eskumen eta prestakuntza egokia.

6. artikulua.- Lehendakaria.

1.- Eusko Jaurlaritzan inklusio-arloko eskumenak dituen saileko sailburua izango da Inklusiorako Euskal Kontseiluko lehendakaria.

2.- Kargua hutsik badago edo titularra absente edo gaixorik badago, Eusko Jaurlaritzan inklusio-arloko eskumena duen sailburuordeak jardungo du lehendakaritzan.

3.- Jaurlaritzaren Legeari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 24 eta 29. artikuluetan aurreikusitako kasuetan, lehendakaritzako titularrak eta hura ordezkatzeko duenak beren eginkizunak utzi beharko dituzte.

4.- Lehendakariak eginkizun hauek izango ditu:

a) Inklusiorako Euskal Kontseiluaren izenean jardutea.

b) Ohiko eta ezohiko bilkuretarako deialdia egitea eta gai-zerrenda finkatzea, salbu lehendakariak hautemandako premiazko kasuetan. Kasu horretan, deialdian bertan jaso beharko da, eta egunean bertan adierazi beharko da zein ordutan izango den lehenengo eta bigarren deialdia eta non egingo den.

c) Bilkuretako buru izatea, eta eztabaidak moderatzea.

d) Aktak ikus-onestea, eta aholku-batzordeak hartutako akordioak egiaztatzea.

e) Akordioak hartzerakoan, bere botoaren bidez berdinketak erabakitzea.

f) Salbuespen gisa, erabakitzea nola egin bilkura, aurrez aurre edo urrutitik. Dagokion deialdian, erabaki horren arrazoiak adierazi beharko dira.

g) Lehendakariaren berezko beste eginkizun batzuk, edo lege edo erregelamenduz

esleitzen zaizkionak

7. artikulua.- Idazkaria.

1.- Eusko Jaurlaritzan inklusio-arloan eskumena duen zuzendaritzako funtzionario bat izango da idazkaria.

2.- Kargua hutsik badago edo titularra absente edo gaixorik badago, Eusko Jaurlaritzan inklusio-arloko eskumenak dituen sailburuak izendatuko ditu hura eta haren ordezkia, zuzendaritza horretako titularrak proposatu ostean.

3.- Idazkaritzako titularrak eta haren ordezkioak eginkizunak utzi beharko dituzte, baldin eta artikuluko honetako 1. apartatuan aipatzen den zuzendaritzako lanpostuan segitzea dakarren egoeraren bat gertatzen bada edota kargutik kendu edo mugiarazten bada, lanpostuari uko egiten bazaio edota funtzionario-egoera galtzen bada; betiere, bat etorri Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legeak xedatutakoarekin.

4.- Idazkariak eginkizun hauek izango ditu:

a) Lehendakariak aginduta, organoaren bilkuretarako deialdia egitea, eta organoko kideentzako zitazioak egitea.

b) Kontseiluak egin dituen bilkuretan parte hartzea, hitzarekin baina botorik gabe.

c) Gaiak prestatzea bidera daitezen; bilkura-aktak idaztea; bilkura-akten fede ematea, eta bilkuretako akordioak, kontsultak eta txostenak ziurtatzea.

d) Kideek organoari egindako komunikazioak jasotzea: jakinarazpenak, datu-eskaerak, zuzenketak, edo bere ardurapean behar dituen bestelako idazkiak.

e) Kontseiluko jarduketan legezkotasun formala eta materiala zaintzea.

f) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legeak kide anitzeko organoen idazkaritzari esleitzen dizkion eginkizunak.

8. artikulua.- Bokalak.

1.- Eusko Jaurlaritzan inklusio-arloko eskumena duen saileko titularrak aginduta izendatuko da nor izango diren bokalak eta nor ordezkatzeko dituen kargua hutsik dagoenean edo do titularra absente edo gaixorik dagoenean; betiere, bat etorri haiek izendatzeko hurrengo artikuluan ezarritako arauekin.

2.- Izendapena lau urterako izango da, eta aldi bererako berritu ahal izango da.

Dena dela, karguagatik izendatzen diren bokalen kasuan, zenbat denbora dirauen kargu-izendapenak, denbora hori iraungo du bokal-izendapenak.

3.- Honako hauek izango dira kargua uzteko arrazoiak:

a) Agintaldia bukatzea.

b) Ordezkatzen duten erakunde, organoa edo entitateko kargutik kentzea.

c) Ebazpen judizial edo administratibo irmo bat ematea, desgaitasuna edo eginkizungabetzea dakarrena kargu publikoak betetzeko.

4.- Inklusiorako Euskal Kontseiluko bokalek honako eginkizun hauek izango dituzte:

a) Bilkuretara bertaratzea, eta bilkurako eztabaidetan parte hartzea.

b) Boto-eskubidea egikaritzea eta boto partikularra ematea, bai eta haren esanahia eta arrazoiak azaltzea ere.

c) Proposamenak, iradokizunak eta galderak egitea.

d) Informazio eta dokumentazio zehatza eskuratzea, bete behar diren eginkizunak betetzeko.

e) Kontseilukide den aldetik, berez dituen beste eginkizun guztiak.

9. artikulua.– Bokalak izendatzea.

Arau hauek bete beharko dira bokalak eta haien ordezkioak izendatzeko:

a) Eusko Jaurlaritzako ordezkari gisa, Eusko Jaurlaritzan inklusio, politika sozial, hezkuntza, enplegu, osasun eta etxebizitza arloetako eskumenak dituzten sailetako sailburuek jardungo dute.

Nolanahi ere, goi-organo bateko titular izan beharko dute, bat etorri Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 13. artikuluan xedatutakoarekin, edota Euskal Autonomia Erkidegoko goi-kargudun izan beharko dute.

b) Udaletako bokalak izendatzeko, EAEko udaletan nagusi den elkarteak izendatu beharko ditu hautetsien artean, eta ahaleginduko da neurri desberdinetako udaletako ordezkariak ordezkatzeko.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore arteko sindikatueta eta enpresaburuen elkarte esanguratsuenetako ordezkariak izendatzeko, sindikatu eta enpresaburuen elkarteko ordezkari bana izendatuko da.

d) Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak bere bokala izendatuko du.

e) Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko entitate-sareak biltzen dituen elkarteak izendatuko ditu Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko entitateen bokalak. Bokalok, berriz, 4.1.f) artikuluan aipatutako eremuetako erreferentzia-sareen artean izendatuko dira, edo, halakorik ez badago, Euskadiko Hirugarren Sektoreko erakundeen artean.

Izena emanda eduki beharko dute Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Erroldan, eta autonomia-erkidego osoan jardun beharko dute.

f) Kontsumitzaileen hiru ordezkariak izendatzeko, bat etorri beharko dute kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarte edo federazioek, zeinek ordezkariarik handiena izan behar baitute EAEko kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteen erregistroan.

Bat etorri ezean, Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutuak identifikatuko du zer elkartek edo federaziok izendatuko dituzten, ordezkari- eta partaidetza-irizpideen arabera.

Lan sozialeko, hezkuntza sozialeko eta psikologiako elkargo profesionalen ordezkariak izendatzeko, bat etorri beharko dute Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako elkargoek, eta, Euskal Autonomia Erkidegoan dagokien kontseilu profesionalik balego, haiek ere bat etorri beharko lukete.

10. artikulua.- Funtzionamendua.

1.- Inklusiorako Euskal Kontseiluak osoko bilkuren bidez eta batzorde iraunkorraren bidez jardungo du.

2.- Lantaldeak sortu ahal izango ditu kontseiluko kideekin eta aztergai izango diren gaietako adituekin.

3.- Bere eginkizunak egokiro betetzeko, Inklusiorako Euskal Kontseiluak behar dituen bitartekoak eta baliabideak izango ditu. Bitarteko eta baliabide horiek, berriz, kontseiluaren adskripzio-sailak jarriko ditu.

4.- Osoko bilkuretako, batzorde iraunkorreko edo lantaldeetako saioetan izatearren, kontseilukideek ez dute eskubiderik izango ordainsaririk, kalte-ordainik edo dietarik jasotzeko.

11. artikulua.- Osoko bilkura.

1.- Lehendakariak, idazkariak eta bokal guztiek eratzen dute osoko bilkura.

2.- Osoko bilkuraren eginkizunak izango dira: 4. artikuluan aurreikusitakoak, funtzionamendu-erregelamendua onartzea, eta gai jakin batzuei buruzko lantaldeak eratzea.

3.- Osoko bilkura, gutxienez, urtean birritan batuko da, eta lehendakariak, bere ekimenez edo bokalik gehienek proposatuta, deialdi berezia egiten duen guztietan.

4.- Lehendakariak, gutxienez ere, zazpi egun lehenago egin beharko ditu osoko bilkurako deialdiak, salbu bilkura bereziko deialdia egiten duenean; kasu horretan, epea bost egunera laburtu ahal izango da.

Deialdiak gai-zerrenda jasoko du, eta baliabide elektronikoz bidaliko zaie osoko bilkurako kide guztiei. Era berean, aurreko paragrafoetan adierazten diren epe beretan, gai-zerrendako gaietako buruzko informazioa helarazi beharko zaie kideei.

12. artikulua.- Batzorde Iraunkorra.

1.- Batzorde iraunkorra da Inklusiorako Euskal Kontseiluko organo betearazlea, eta kide hauek ditu:

a) Lehendakaria, 6 artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Idazkaria, 7. artikuluan xedatutakoaren arabera.

c) Hamahiru bokal, osoko bilkurak aukeratuak osoko bilkura bera osatzen dutenen artetik, eta banaketa honekin:

1.- Eusko Jaurlaritzako bokal bi.

2.- Foru-aldundietako bokal bat.

3.- Udaletako bokal bat.

4.- Sindikatu etako bokal bat eta Euskal Autonomia Erkidegon sektorearteko enpresaburu-elkarte esanguratsuenetako bokal bat.

5.- Euskadiko Kooperatiben Konfederazioko bokal bat.

6.- Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko lau bokal.

7.- Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen bokal bat.

8.- Ordezkatutako elkargo profesionalen bokal bat.

2.- Osoko bilkurak proposatuta, Inklusiorako Euskal Kontseiluko lehendakaritzako titularrak izendatuko ditu batzorde iraunkorreko bokalak eta haien ordezkioak.

3.- Ohiko bilkurak eta bilkura bereziak egin aurretik bilduko da batzorde iraunkorra, eta, nolanahi ere, lehendakariak, bere ekimenez edo sei bokalek proposatuta, deialdia egin ostean.

4.- Hauek izango dira batzorde iraunkorraren eginkizunak:

a) Osoko bilkurak prestatzea.

b) Bermatzea betetzen direla osoko bilkuraren akordioak.

c) Osoko bilkurak gomendatutako lanak egitea.

d) Osoko bilkurari jarduketa-ekimenak aurkeztea eta proposatzea.

e) Lantalderik badago, haiek koordinatzea.

f) Osoko bilkurak espresuki eskuordetzen dion beste edozein eginkizun.

5.- Batzorde iraunkorreko deialdiak egiteko, aurreko artikularen 3. apartatua bete beharko da.

13. artikulua.- Osatzea, eta akordioak hartzea

1.- Osoko bilkura eta batzorde iraunkorra lehenengo deialdian baliozkotasunez eratzeko, beharrezkoa izango da bertan izatea lehendakaritzan eta idazkaritzan dihardutenak gehi hamazortzi bokal osoko bilkuraren kasuan, edo gehi zazpi bokal batzorde iraunkorraren kasuan.

Asistentzia-quorum nahikoa ez badago, bigarren deialdian bilduko dira ordu erdi geroago, eta, eraketa baliozkoa izateko, nahikoa izango da lehendakaria eta idazkaria edo haien ordezkariak bertan izatea, gehi hamabi bokal osoko bilkuraren kasuan, edo gehi bost bokal batzorde iraunkorraren kasuan.

2.- Idazkaria eta osoko bilkurako edo batzorde iraunkorreko kide guztiak aurrez aurre edo urrutitik bilduta daudenean, baliozkotasunez eratu ahal izango dira bilerak egiteko, eztabaidatzeko eta akordioak hartzeko, aldez aurretik deialdia egin beharrik izan gabe; betiere, kide guztiek hala erabakitzen badute.

3.- Inoiz ezingo da eztabaidatu edo akordiorik hartu gai-zerrendan sartuta ez dauden gaiei buruz, salbu eta osoko bilkurako edo batzorde iraunkorreko kide guztiak bertan badaude eta gaia presakotzat jotzen bada kide gehienek aldeko botoaz.

4.- Urrutitik egiten diren bilkuretan, osoko bilkuretako edo batzorde iraunkorretako kideak toki desberdinetan egon daitezke, baldin eta honako hauek bermatzen badira bitarteko elektronikoz —telefonoak zein ikus-entzunezko bitartekoak barne— : nor diren kideak edo haien ordezkioak, zein den haien adierazpenen edukia eta noiz egiten diren adierazpen horiek; era berean, bermatu behar da kideen arteko interaktibitatea, komunikazioa denbora errealean

egiten dela, eta bilkuretan bitartekoak erabilgarri daudela. Baliabide elektronikoen artean, besteak beste, posta elektronikoa eta bideokonferentziak sartuko dira.

5.- Osoko bilkurako eta batzorde iraunkorreko kide guztiek boto bana izango dute, salbu idazkariak.

Osoko bilkurako edo batzorde iraunkorreko akordioak hartzeko, emandako botoen gehiengoa beharko da; berdinketarik izanez gero, lehendakariak desegingo du berdinketa, kalitate-botoaren bidez. Desadostasunik egonez gero, boto partikular arrazoitua eman ahal izango da.

6.- Ulertuko da akordioak non eta Inklusiorako Euskal Kontseilua adskribatuta dagoen saileko egoitzan hartuko direla.

7.- Aztergai den eremuko adituak ere joan ahal izango dira bilkuretara, hitzarekin baina botorik gabe.

14. artikulua.- Bilkuretako aktak.

1.- Idazkariari dagokio bilkura guztietako aktak egitea lehendakariaren oniritziarekin.

Kargu horiek betetzen dituztenek elektronikoki sinatu beharko dituzte aktak.

2.- Akta bitarteko elektronikoen bidez bidaliko zaie osoko bilkurako edo batzorde iraunkorreko kide guztiei. Kideok, berriz, beren baliabideak erabili, eta aditzera eman ahal izango dute ea ados dauden testuarekin, edo eragozpenen bat duten testua onartzeko; baiezkoa emanez gero, bileran bertan joko da onartutzat.

Bilera guztietako aktak bilera-amaieran onartuko dira, edo hurrengo bilera hasten denean.

3.- Aktan, zehaztuko da nor bertaratu diren bilerara, zein izan den gai-zerrenda, non eta noiz izan den bilkura, zein izan diren eztabaidetako puntu nagusiak eta zein hartutako akordioen edukia.

4.- Izandako bilkurak grabatzea hautatu bada edo euskarri elektronikoko dokumentuak erabiltzea hautatu bada, kontserbatu egin beharko dira fitxategi horien osotasuna eta autentikotasuna bermatzeko moduan, bai eta Batzordeko kideek horietarako irispidea izateko moduan ere.

Aktak eta apartatu honek aipatzen dituen dokumentuak kontserbatzeko, bat etorri beharko da beti onartutako formatu eta estandarrekin, bat etorritik Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalarekin, Segurtasunaren Eskema Nazionalarekin eta Eusko Jaurlaritzak dokumentuak kudeatzeko dituen politika eta ereduarekin.

15. artikulua.- Lantaldeak.

Osoko bilkurako akordioz, lehendakariak lantaldeak eratu ahal izango ditu gaien arabera. Lantaldeok, berriz, bilkurako kideek osatuko dituzte; baita, behin-behinekoz, kanpoko adituak ere. Adituok azterlan espezifikoak egiteko eta proposamenak egiteko izendatuko dira, egokitzen jotzen den kopuruan.

Adituak bileretara joango dira hitzarekin, baina botorik gabe.

16. artikulua.- Euskararen erabilera.

1.- Inklusiorako Euskal Kontseiluak bermatuko du euskara erabili ahal izango dela, bat etorri euskaren erabilera normalizatzeko legeriarekin.

2.- Nolanahi ere, deialdiak, aktak eta ziurtagiriak elebitan idatzi beharko dira.

17. artikulua.- Urteko txostena, publizitatea eta gardentasuna.

1.- Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 18.5 artikulua araber, urtero, kudeaketa-memoria bat idatzi, eta plazaratuko da Eusko Jaurlaritzaren Gardena gardentasun-atariaren bidez.

2.- Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 144.2 artikulua araber, aipaturiko gardentasun-atariaren bidez argitara emango da nolaosatzen diren Inklusiorako Euskal Kontseiluko osoko bilkura, batzorde iraunkorra eta, hala dagokionean, lantaldeak.

Era berean, argitara emango dira hartzen diren akordio eta bilera-akta guztiak.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.- Izendapenak.

1.- Dekretu hau indarrean sartu eta hilabeteko epean, Inklusiorako Euskal Kontseiluko kideak izendatuko dira.

2.- Lehenengo osoko bilkura egiten denean, proposatuko da batzar iraunkorreko kideak izendatzea, eta lehendakariak izendatuko ditu.

Horretarako, lehenengo osoko bilkurako gai-zerrendan jasoko da batzorde iraunkorreko izendapenak egiteko proposamena.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.- Eratzea.

Inklusiorako Euskal Kontseilua eratuko da, eta osoko bilkurak lehenengo bilera egingo du hilabeteko epean, aurreko xedapen gehigarriko 1. apartatuak aipatzen duen izendapena egiten denetik aurrera.

AZKEN XEDAPENA – BAKARRA.- Indarrean jartzea.

Dekretu hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta hurrengo egunean.

Vitoria-Gasteizen, 20 (e)ko ren (e)an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERÍA.

Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.